



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko abuztuaren 21a

81 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- Galdera, Volkswagen, UGT, CCOO eta Nafarroako administrazioaren ordezkarien artean hitzarmenaren negoziazioan jorratu beharreko gai batzuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, kanabisaren erabilera terapeutikoa baimentzeko egin diren kudeaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Fustiñanan zerri hilentzako eta minda-putzuetarako dagoen zangari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, N-121-A errepideko Bera-Behobia zatirako epe laburreko soluzioren bat aurreikusteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Iruñeko Inquinasa-Vantico fabrikan dagoen labe pirologikoan errausten diren hondakinei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Fustiñanan dauden minda-putzuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, klima-aldaketari aurre egiteko estrategiak betetzeko aurreikusitako ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, bertako karramarroa berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Bonelli Arranoa berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, ugatza berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, hartz arrea berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Zaraitzu ibarreko basoetako oihanzaintza-lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, minbizia duten haurren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, euren goi karguen izendapenen berri eman ez duten sozietate publikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean osasun-hondakinen kudeaketa gaur egungo egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

- Galdera, banku-gordailuen baldintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Asteraingo errepedeak Irurtzundik pasatzean sortzen dituen arazoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, ekialdeko saihebidetako obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, “Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuko langileak” terminologiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Igualatorio Médico Quirúrgico de Navarra (IMQ) aseguru-konpainiarekin hitzarmen berria sinatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Zabalguneko Oinarrizko Osasun Laguntzako Etxeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Osasunbiderako euskara normalizatzeko plan bat eskatzeko aurkezturiko eskaerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, abereak hiltegiara eramateko egiten diren osasun-ziurtagiriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Foru Komunitateko administrazio orokorrak errentan hartuta dituen lokalei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, aurrekontuko “Laneko arriskuei aurrea hartzeko ordezkari sektorialendako laguntzetako programak” kontusailaren betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Volkswagen, UGT, CCOO eta Nafarroako administrazioaren ordezkarien artean hitzarmenaren negoziazioan jorratu beharreko gai batzuei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak Volkswagen, UGT, CCOO eta Nafarroako administrazioaren ordezkarien artean hitzarmenaren negoziazioan jorratu beharreko gai batzuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du Volkswagen, UGT, CCOO eta Nafarroako administrazioaren ordezkarien artean hitzarmenaren negoziazioan jorratu beharreko gai batzuei buruzko bilera egiteari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan

kontseilari Nuria Iturrigagoitia Ripoll andrearen erantzuna.

1) Bai.

2) Nafarroako Gobernuak Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuarena.

3) Bilera horren ardura bertan parte hartu zutena eta ez beste inorena da, hamaika gairi buruz egiten diren guztiak bezalaxe. Ez dago haren gai zerrendarik ez aktarik.

4) Ez. Hitzarmenaren negoziazioa beti da enpresa eta langileen afera eta ez beste inorena. Gobernuak esku hartzen du soilik bitartekaritza eskatzen zaionean, eta ez da hala gertatu kasu honetan.

Iruñean, 2002ko martxoaren 12an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari: Nuria Iturrigagoitia Ripoll

## **Galdera, kanabisaren erabilera terapeutikoa baimentzeko egin diren kudeaketei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak kanabisaren erabilera terapeutikoa baimentzeko egin diren kudeaketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko azaroaren 19ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak, 2002ko otsailaren 28an, galdera egin du Nafarroako Gobernuak kanabisaren erabilera terapeutikoa baimentzeko administrazio publikoetan egin dituen kudeaketei buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak kudeaketak egin ditu horretarako, mozioa loteslea ez bazen ere.

Kudeaketa horiek bideratu dira, batez ere, galderaren xedea den konposatuaren egokiespenen gainean egun eskura dagoen ezagutza zientifiko-

aren etengabeko balorazioa egitera; Nafarroak gainerako osasun erakunde nazionalekin hartu du parte lan horretan, koordinaziorako ohiko tresnen bitartez.

Kudeaketa horien ondorioa izan da Osasun Departamentuak gai horren inguruan azaldutako irizpideei eusteko erabakia.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 8an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, Fustiñanan zerri hilentzako eta minda-putzuetarako dagoen zangari buruzkoa**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak Fustiñanan zerri hilentzako eta minda-putzuetarako dagoen zangari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak Fustiñanan zerri hilentzako eta minda-putzuetarako dagoen zangari buruz galdetu eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna

1º. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak jakin du, Fustiñanako alkateak 2002ko otsailaren 14an igorritako eskutitz baten bitartez, minden lehorte naturalerako baltsak egin eta animalien lurperatzea kudeatzeko asmoa dutela. Otsailaren 20an idazkia bidali zitzaion udalari, adierazteko mota horretako instalazioak jarduera sailkatuen araubideari eta natur ingurunean egin beharreko obren azterlanen eta proiektuen gaineko arabei loturik daudela eta,

beraz, Ingurumen Departamentuaren esku-hartzea behar dela, xedapen horiek ezartzen duten moduan, eta proiektu teknikoak aurkeztu beharra dutela. Era berean, adierazi zitzaion titularrak baimen berezia behar duela, baltsa horietan hondakinen balorizazioa egiteko emana, txerri ustategien antolamendurako oinarriko arauetan eta Hondakinei buruzko Legean aurreikusitakorekin bat.

2º. 2002ko martxoaren 1ean Guardia Zibilaren SEPRONA zerbitzuaren salaketa bat jaso genuen, Antonio Munilla García jaunak aurkeztua baltsa horiek eraikitzean jarduera sailkatuen erregelamendua ustez urratzeagatik eta lurperatzeko zangen kasuan Basa fauna eta flora babesteari buruzko legea ustez hausteagatik. Horren ondorioz, administrazio espedienteak irekitzeari eman zaio hasiera, eta une hauetan tramitean daude.

3º. Lehendabiziko galderak aipatzen dituen proiektuak aztertuz, ikusiko da zein izan daitezkeen ondorio kaltegarriak eta ezarri beharko liratekeen neurri zuzentzaileak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 11n

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## **Galdera, N-121-A errepideko Bera-Behobia zatirako epe laburreko soluzioren bat aurreikusteari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak N-121-A errepideko Bera-Behobia zatirako epe laburreko soluzioren bat aurreikusteari buruz egingako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du N-121-A errepideko Bera-Behobia zatirako epe laburreko soluzioren bat aurreikusteari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

1. Gogoan al du Nafarroako Gobernuak konponbideren bat epe motzean N-121-A errepideko Bera-Behobia bideunerako?

Nafarroako Gobernuak errepideen plan zuzentzailean du aurreikusirik N-121-A errepideko Bera-Behobia bideunearen erreforma osoa.

2. Ez al da egia egin beharko litzatekeen obraren ezaugarriei buruzko akordio teknikoa dagoela?

Bai.

3. Hori hala baldin bada, zer arazok eragozten du behin betiko konponbidea ematea errepide horri?

4. Zer urrats eman dira Gipuzkoako Aldundiarekin arazoari behin betiko konponbidea bilatzeko? Adierazi noiz egin diren bi aldeen arteko bilera edo komunikazioak eta zertan jarri ahal izan zireten ados eta zertan ez.

Bi gai horietaz azalpen nahiko zehatzak eman nituen Nafarroako Parlamentuko Herrilan eta Azpiegitura batzordean 2002ko martxoaren 12an egin nuen agerraldian eta, beraz, han esan nuena eta batzordearen bilkura egunkarian ageri dena gogoraraztea besterik ez daukat.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 13an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

## Galdera, Iruñeko Inquinasa-Vantico fabrikan dagoen labe piroligikoan errausten diren hondakinei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Iruñeko Inquinasa-Vantico fabrikan dagoen labe piroligikoan errausten diren hondakinei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Iruñeko Inquinasa-Vantico enpresaren hondakin bereziak errausteko instalazio baten erabilerari buruz galdetu eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1º. Iruñeko Inquinasa-Vantico enpresan ez dago jardunean inongo errauste instalaziorik.

2º y 3º. Ez da beharrezkoa erantzutea, aurreko erantzunak agerian utzi duenez.

4º. Errauste labea itxi aurreko urteetan honakoak izan ziren:

Produktua	Data	Kontz. mg/Nm <sup>3</sup>
Partikula solidoak	2000ko abendua	Bat ere ez
	1999ko abuztua	Bat ere ez
	1998ko abendua	Bat ere ez
HC1	2000ko abendua	< 5
	1999ko abuztua	< 5
	1998ko abendua	< 5
SO2	2000ko abendua	< 1
	1999ko abuztua	< 1
	1998ko abendua	< 1
NOx	2000ko abendua	< 10
	1999ko abuztua	< 10
	1998ko abendua	< 10
COV	2000ko abendua	3,7
	1999ko abuztua	Aurkitzeko modukoa ez
	1998ko abendua	4,2

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 13an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

## Galdera, Fustiñanan dauden minda-putzuei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Fustiñanan dauden minda-putzuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Fustiñanan dauden minda-putzuetako baldintzei buruz galdetu eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna

1º. Minda-putzuak ez dira eraiki aginduzko trasteak bete ondoren, alegia, jarduera sailkatuaren lizentzia eta txerri-aziendaren sektorea antolatzen duten arau oinarritzkoen eta horiekin loturiko Hondakinen Legearen arabera baimena eskaturik.

Hori dela-eta, Fustiñanako Udaleri instalazio horiek legeari lotu dakizkion eskatu zaio, eta horretarako aurkez ditzan behar diren proiektu teknikoak, indardun araudiak eskatzen dituen baldintzak barne, eta hondakin kudeatzailearen baimena eska dezan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 8an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

## Galdera, klima-aldaketari aurre egiteko estrategiak betetzeko aurreikusitako ekintzei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak klima-aldaketari aurre egiteko estrategiak betetzeko aurreikusitako ekintzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak klima-aldaketari aurre egiteko estrategiak betetzeko Ingurumen Departamentuak aurreikusitako ekintzei buruz galdetu eta idatzizko

erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1º. Nafarroako Foru Komunitatean klima-aldaketari aurre egiteko estrategiak betetzeko Ingurumen Departamentuak aurreikusitako ekintzak sarturik daude aniztasun biologikoa zaindu eta modu eramangarrian erabiltzeko Nafarroako estrategiaren 1999-2004 urteetarako ekintza planean. Nafarroako Gobernuak, 1999ko otsailaren 8an, estrategia hori onartu eta Nafarroako Parlamentura igorri zuen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 8an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

## **Galdera, bertako karramarroa berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak bertako karramarroa berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 20ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak bertako karramarroa berreskuratzeko planaren betetze-mailari buruz galdetu eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1996az geroztik gauzatu izan dira bertako karramarroa edo karramarro autoktonoa berreskuratzeko planean aurreikusiriko azterketa lanak eta ikerketak. Denbora horretan, karramarro autokto-

noa berreskuratzeko egokiak diren ur-leku berriak identifikatu eta hautatu dira. Guztira, 26 ur-leku berreskuratzen lan egin da, eta horietatik hirutan populazio finkatua dago. Beste 11 aldetan populazioak finkatzen ari dira eta gainerako 9etan translokazioak edo biziraupeneko entseguak gertatu zain daude.

Espezie horren basa populazioen gaineko osasun azterketak egin dira. Lortutako emaitzek osasun egoera ona adierazten dute eta ez da antze-man organismo patogenorik.

Azterketa taxonomikoak eta aldagarritasunare-nak egin dira teknika genetikoak erabiliz.

Karramarro aloktonoaren populazioen kontrol eta jarraipen lanak ere bete dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 11n.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

## **Galdera, Bonelli Arranoa berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Bonelli Arranoa berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 20ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Bonelli arranoa berreskuratzeko planaren betetze-mailari buruz galdetu eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Bonelli arranoak Europako laguntza jaso zuen 1996-2000 urteetarako. Horren ondorioz, zenbait jarduera gauzatu ziren Foru Komunitatean dauden bi bikoteen populazio dinamikaren berri izate-



ko. Espeziearen dinamikaren ezagutza hobetzeko azterketak egin ziren. Arranoen lurraldean hegazti harraparien heriotzak eragiten zituzten linea elektriko zenbait kendu ziren. Espezieak erabiltzen dituen haitzetan eskalada egiteko arauak ezarri ziren, baita Nafarroan habia egiten duten bikoteen zaintza eta kontrolerako protokolo bat ere. Hala-ber, Bonelli arranoa dagoen tokietan ehiza eta oihangintza harmonizatzen lan egin da.

Gaur egun, LIFE proiektua amaiturik dagoela, gure lurraldean habia egiten duten bi bikoteen kontrola egiten jarraitzen dugu. Amaitzeko aipatu

behar da Bonelli arranoa bizi den bi alde horietan babesa ezarria dagoela, bata BIL eta bestea HEBABE gisa Natura 2000 Sarean sarturik daudenez gero.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 11n.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## **Galdera, ugatza berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ugatza berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 20ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ugatza berreskuratzeko planaren betetze-mailari buruz galdetu eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Ugatza babesteko Europako LIFE programaren funtsak jaso dira 1993tik 1998ra bitarte. Laguntza horri esker asko aurreratu da berreskuratzeko planaren helburuak betetzeko bidean. Espeziearentzat elektrokuzio arrisku handiena zuten linea elektrikoak aldatu dira; gure lurraldean modu iraunkorren bizi diren ale guztien jarraipen programa bat ezarri zen; elikadura osagarriko gune bat sortu zen eta zenbait azterlan egin ziren hegazti honen biologiaren eta ekologiaren ezagutzak sakontzeko. Berreskuratzeko planaren esparrutik bertatik basa fauna babesteko eremuak ezarri ziren habiak egiten ohi diren tokien ingurunean.

Ez da ahaztu espeziearekin zuzeneko lana egitea: urtero kontrolak jartzen dira abian umatzearen bilakaeraren berri emateko, Pirinioetako populazioaren bilakaera ezagutzeko, Pirinioetako gainerako herrialde eta autonomia erkidegoekin lankidetzan, eta bereziki kontrol zehatza mendealdeko gunean. Jakinaenez, Nafarroak berebiziko garrantzia du espeziea Kantabriar Mendikatearen aldera hedatzen laguntzeko, gune horren bilakaera funtsezkoa delako horretarako.

Era berean, ale berriak hemen kokatzen laguntzearen aldeko lana egin da. Horretarako, elikadura osagarriko beste puntu bat sortu da, dagoenari gehitzeko.

Pozoiaren erabilera da estatu osoan, dirudienez, berriz zabaltzen ari den arazoa. Iaz ugatz eme bat eta haren kumea agertu ziren hilik Nafarroako habia batean, beharbada pozoien eraginez. Foruzaingoak, gertaera horren inguruan hasitako ikerketen ondorioz, epailearengana eraman zuen pozoitze kasuekin ustez zerikusia zuen pertsona bat.

Azkenik, mendealdeko guneko hegaztien jarraipena egiteko azterketa bati ekingo zaio hedapena eragozten ari diren faktoreak zein diren zehaztu eta hura lehenbailehen gerta dadin lortzeko.

Amaitzeko esan espeziea modu iraunkorren bizi den lurralde guztiak Natura 2000 Sarearen proposamenean daudela sarturik. Horrek esan nahi du 82.533 hektarea daudela babesturik ugatzak erabiltzen dituen habitatetan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 11n.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

## **Galdera, hartz arrea berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak hartz arrea berreskuratzeko Planaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 20ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak hartz arrea berreskuratzeko planaren betetze-mailari buruz galdetu eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Nafarroan hartz arrea berreskuratzeko plana Erronkari Ibarren ordezkariek diren entitate batzuen errekurtsioen xede izan zen; errekurtsio horiek auzitegiaren aukera guztiak agortu zituzten eta horrek berreskuratzeko planaren aplikazioan atzerapena ekarri zuen. Planaren zati handi batek ukitutako herrien partaidetza behar duenez, ulertu daiteke planean aurreikusitako alderdietako batzuk ezartzerik ez dela izan. Nolanahi ere, kontrol sistema bat ezarri zen aldameneko aldeetatik hartzek egin zitzaketan bisitak antzemateko, Nafarroan urteak zirelako hartzik ez zela, modu iraunkorrean behintzat.

Frantziako Pirinioetan bizi zen hartzen batek bizilekua Erronkari Ibarreko goialdera aldatu izanak aldaketa nabarmena ekarri zion Nafarroako

Gobernuak egindako kudeaketari. Are gehiago kontuan hartzen badugu hartz horrek ardi azien-dari eragindako kaltea handi samarra dela. Lehengo eta behin, animalia bat-batean agertzeak ganaduzaleei ekarritako premiei eman zitzaien erantzuna: azien zaindu eta defenditzea. Ondoren, Frantziako teknikarien laguntzaz, hartz harrapatze ahalegina egin zen, marka ezarri eta jarraipena egiteko, baina alferrik izan zen.

2000. urtean abeltzaintzako kalte-ordainetarako lerro bat ezarri zen, urtero berritzen den foru aginduaren bidez. Foru agindu horretan aurreikusitako ukipen-eremua berreskuratzeko planean islatzen dena baino handiagoa da, hartzaren lurralde osoa hartu ahal izateko. Horren osagarri gisa, hartzak azien-dari eragindako kalteen ordainak ere mantendu dira.

Nafarroako Gobernuaren ingurumen zaintzak zainketa iraunkorra egiten du alde horretan, animalien mugimenduak antzeman, kalteez arduratzeko eta espeziearen inguruan gerta litekeen edozein gorabeheraren berri emateko. Era berean, etengabe harremanak daude Frantziako teknikariekin lanak koordinatzeko eta informazioa azkar trukatzeko.

Gaur egun, hartzak korritzen ohi duen lurralde osoa dago babesturik Natura 2000 Sarearen barrenean, guztira 11.946 hektarea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 11n.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

## **Galdera, Zaraitzu ibarreko basoetako oihanzaintza-lanei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Zaraitzu ibarreko basoetako oihanzaintza-lanei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 20ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Zaraitzu ibarreko basoetako oihangintza-lanei buruz galdetu eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Egin egiten dira, bai udalen, kontzejuen eta Zaraitzuko Batzarre Nagusiaren herrilurretan bai partikularrenetan. Lan horiek, besteak beste, bakantzeak, basoberritzeak, garbiketak, inausketak eta birsortzeko itxiturak paratzea izaten dira. Lan horiek guztiak teknikari adituak izenpetu eta

zuzentzen dituen memoria edo proiektuetan aurreikusten dira, oihangintzaren arloko administrazioak ikuskaturik.

Herri mendietan, oihangintzako lanak egiteko modua toki entitateen eskumena da; eguneko soldaten bidezko administrazio prozedura erabili ohi da orain arte horiek betetzeko. Partikularren mendietan, berriz, lanak kontrata bidez betetzen dira eta inbertsioa munta txikikoa baldin bada finkaren jabeak berak egiten ditu.

Informazioaren osagarri gisa, ondotik ematen dira 1999 eta 2000. urteetako oihangintzako lanen, hektareen eta inbertsioen datuak, kontuan hartu gabe azpiegiturak, 2001ekoak ez baititugu eskura aurtengo martxoaren 30era arte.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 7an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

(Oharra: Aipatu eranskinak foru parlamentarien eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

## Galdera, minbizia duten haurren egoerari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak minbizia duten haurren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 20ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak, 2002ko otsailaren 20an, galdera egin du minbizia duten haurren eta haien familien egoerari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Pediatrian, indarra duen legeriari jarraikiz, ez dago espezialitaterik, espezialitatea pediatria bera delako. Pediatriako gaixo onkologikoez Pediatria Zerbitzua arduratzen da, horrek dituen antolaketa irizpideez baliaturik. Forma eta lege aldetik ez dago onkologia pediatrikoaren espezialitaterik, eta beraz ezin zaio izaera hori eman, zerbitzuaren beraren barne antolaketarako hartzen diren erabakietan ez bada.

Pediatriako gaixok isolatzen dira inguruabar klinikoek hala eskatzen dutenean eta ospitaleratze unitateen barrenean, eta ez da behar-beharrezkoa isolamendu unitateak sortzea.

Pediatriako ZIU bat sortzeari dagokionez, sendagile intentsibistek hartu beharko lukete bere gain, lehendabiziko puntuan azaldutako arrazoiengatik. Ez dago pediatriako sendagile intentsibistaren espezialitatea.

Pediatriako gaixo bat lekuz aldatzeko baliabide berezia (hau da, anbulantzia) erabiltzeko erabakia gaixok duen patologiarekin aurrean erabaki behar duen sendagileak hartzen du.

Lojamendu eta mantenu gastuetarako eguneko dieta 4.000 pezetakoa da 2001eko amaieraz geroztik.

Tratamendu onkologikoan zehar gaixorik dauden seme-alabak zaintzeko amak edo aitak eszedentzia hartzeko aukera arautzeaz, esan behar dut aldi baterako ezgaitasunaren gaineko araua Gizarte Segurantzari dagokion legeria dela eta, beraz, Estatuaren eskumen osoa.

Nolanahi ere, aldi baterako ezgaitasunak lotura du langilearen lesio eta gaixotasunekin. Ikuspegi horretatik ere, amatasun edo haurdun gertatzeko arriskuagatik prestazioak ez dira aldi baterako ezgaitasuntzat hartzen. Alderdi hori finantzatzekotan logikoa dirudi gizarte zerbitzuen prestazio gisa egitea. Baina beste kasu batzuen senitartekoen aldean (gaixo onkologiko helduak, zaharrak, minusbaliatuak, gaixo kronikoak, gaixo larriak...) konparaziozko bidegabekeriak gerta daitezke.

Nafarroako Gobernuak baditu eskumenak, ordea, bere montepioek hartzen dituzten funtzionarioen kasuan, baina kontuan hartu beharko liriteke lehen aipatutako konparaziozko bidegabekeria horiek.

Aldi baterako ezgaitasuna Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak ematen du, Gizarte Segurantzaren alta emandako titularrei soilik.

Plan onkologikoak osotasunean hartzen du onkologia eta maizen agertzen diren patologiek gidatzen dute, ez populazioaren adin piramideek; horrek ez du esan nahi haurren berezitasunak ez direla kontuan hartzen, plan onkologikoaren garapen eta ezarpenean beste alderdi bat diren aldetik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 11n.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, euren goi karguen izendapenen berri eman ez duten sozietate publikoe buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak euren goi karguen izendapenen berri eman ez duten sozietate publikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko martxoaren 4ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du euren goi karguen izendapenen berri eman ez duten sozietate publikoei buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak (goi kar-

guen erregistroa kudeatzen duen organoa) egini-ko txostenean islatua. Aipatutako organoak erabateko independentzia du erregistroa kudeatzeko, Nafarroako Gobernuako kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 15ean.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

(Oharra: Aipatu txostena foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

## **Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean osasun-hondakinen kudeaketa gaur egungo egoerari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Foru Komunitatean osasun-hondakinen kudeaketa gaur egungo egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Foru Komunitatean

osasun-hondakinen kudeaketaren gaur egungo egoerari buruz galdetu eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Ospitale publiko eta pribatuetan sortzen diren osasun-hondakin berariazkoen kudeaketaren gaineko Foru Komunitateko araudian zehazturiko osasun-hondakin guztiak eta sendagai zitostatikoen eta zitotoxikoen hondakinak kudeatzaile baimenduak kudeatzen ditu, hain zuzen ere lehiaketa publikoaren adjudikazioa hartu zuena, establezimendu publikoetan sortutako hondakinen kasuan. Hondakin horiek Nafarroatik kanpo erretzen dira.

Osasun zentroek bestelako hondakinak ere sortzen dituzte, besteak beste laborategiko hondakinak eta erradiografiak errebelatzeko likidoak;

horien kudeaketa ere kudeatzaile baimenduen bitartez egiten da.

Kontsulta partikularren kasuan, berriz, Ingurumen Departamentuak horretarako emandako baimena duten sei enpresek biltzen dituzte hondakinak. Horrela bildutako hondakinak, gehien bat orratzak eta hondakin puntazorrotz eta ebakitzailak, Espainian dauden autoklabe instalazioetara,

batez ere Burgosen eta Tarragonan daudenetara, igortzen dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 11n

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

## Galdera, banku-gordailuen baldintzei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak banku-gordailuen baldintzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Batasuna Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuaren banku-gordailuen baldintzei buruz galdetu eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

2001eko martxoaren 6an onetsi zen Nafarroako 1999ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea. Lege horretan, beste informazio dokumental batzuen artean, Batasuna Parlamentuko Taldeak eskatutakoa ageri da.

2001eko martxoaren 6an onetsi zen Nafarroako 1999ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legea. Lege horretan, beste informazio dokumental batzuen artean, Batasuna Parlamentuko Taldeak eskatutakoa ageri da.

2001eko abenduaren 31ko informazioari dago-kionez, eta kontuan harturik Nafarroako ekitaldi horretako kontu orokorren behin-behineko itxea, adierazi daiteke Nafarroako Gobernuak banku-gordailuetan zeukan diru kopuruak 69.925.028.011 pezeta egiten zuela; horietatik 336.769.290 pezeta entitate hauen kontu korrontetan zeuden:

Banco Atlántico, Deutsche Bank, Banco Español de Crédito, Banco Guipuzcoano, Banco Herre-ro, Banco Santander Central-Hispano, Barclays Bank, Banco Pastor, Banco Popular Español, Banco de Sabadell, Banco de Valencia, Banco de Vasconia, Banco de Vitoria, Banco Zaragozano, Lloyds Bank, Banco Urquijo, Citibank, Bankinter, Banco Espirito Santo, Bankoa, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, Caja Duero, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra, Ibercaja, Caja Galicia, Caja España, La Caixa, Nafarroako Rural Kutxa, Euskadiko Kutxa eta Banco de España. Interes tasa urtean % 2,20koa zen.

Halaber, 69.588.258.721 pezeta zeuden egun bateko epean kokaturik epe finkoko inbertsioan, honako ordainketa hauekin: % 3,90, % 3,95, % 3,97, % 4, % 4,01, % 4,02 (guztien oinarria 365 egun/ urtean) eta % 3,84, % 3,90, % 3,95 (guztien oinarria 360 egun/ urtean), egunero interesen kalkulu eginda eta kapitalizazioa mugaeguna iraganik.

Horiek entitate hauetan egin ziren: Ibercaja, Banco de Vitoria, Banco Guipuzcoano, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra, Banco de Valencia, Euskadiko Kutxa, Caja España, Banco Español de Crédito, Bankinter, Banco Atlántico, Banco de Vasconia, Banco Urquijo, Banco Santander Central Hispano, Banco Popular, Caja Galicia, La Caixa, Banco Zaragozano, Nafarroako Rural Kutxa, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria eta Banco Espirito Santo.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria, Francisco Iribarren Fentanes

## **Galdera, Asteraingo errepideak Irurtzundik pasatzean sortzen dituen arazoei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Asteraingo errepideak Irurtzundik pasatzean sortzen dituen arazoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko martxoaren 11ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak galdera egin du Ekialdeko Saihesbidean egiten ari diren obrei buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

1. Zergatik ez dago eremu hori behin-behinekoz margoturik eta argiztaturik gauean?

Obrak hasi baino lehen, ekialdeko saihesbidea bidegurutzeetan baizik ez zegoen argiztaturik. Egiten ari den bikoizteko proiektuak sestrako bidegurutzeak kendu eta maila ezberdinetako egituren bidezko lotuneak ezarriko ditu horien ordeztu. Horiek egiteko beharrezkoa izan da bertan zeu-

den farolak desmuntatzea eta hutsunea betetzeko TL-2 motako argi-balizak paratu dira behin-behineko desbideraketetan.

Bestalde, esan beharra dago bidea margoturik dagoela TB-12 motako marka horiarekin, eta behin baino gehiagotan margotu dela, 16.801 metro lineal egin arte, proiektuak 9.480 metro lineal aurreikusten bazituen ere.

2. Noizko aurreikusi da obren amaiera?

Kontratuaren arabera, obrak amaitzeko epeak hauexek dira:

I Tartea Sadar erreka-Olazko saihesbidea: 2002ko maiatzaren 27

II Tarte A-15 – Sadar erreka: 2003ko apirilaren 3 I eta II tarte argiztapena: 2002ko urriaren 18

3. Betetzen ari al dira obra hori egiteko epeak?

Gaur arte betetzen joan dira exekuzio epeak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 26an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

## Galdera, ekialdeko saihebidetako obrei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak ekialdeko saihebidetako obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko martxoaren 11ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Askotarikoa Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak galdera egin du Asteraingo errepideak Irurtzundik pasatzean sortzen dituen arazoei buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

1. Aurreikusirik al du Nafarroako Gobernuak saihebidetaren proiektu hori errepideen plan zuzendariaren berrikuspenean sartzea? Hala bada, zein dira gobernuak lanak hasi eta amaitzeko esku artean dituen epeak?

Irurtzungo Udalari jakinarazi zitzaionez eta jendaurrean behin baino gehiagotan adierazi denez,

Nafarroako Gobernuak aurreikusirik du Irurtzungo saihebidetako berria Nafarroako Errepideei buruzko II. Plan Zuzendarian.

Obra horiek egiteko data plan zuzendari horretan sartuko den behin betiko programazioaren menpe egonen da.

2. Daturik ba al du "Asteraingo errepide" horretatik egunero ibiltzen den trafikoari buruz, garraio astuna barne?

Bai 2001. urtean, Irurtzun zeharkatzen duten errepideetako eguneko batez besteko intentsitateak hauexek izan ziren:

– N-240-A, Iruña-Irurtzun: 2.568 ibilgailu egunean, horietatik % 1,9 ibilgailu astunak.

– NA-7010, Asterain-Irurtzun: 942 ibilgailu egunean, horietatik % 10,3 ibilgailu astunak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 26an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

## Galdera, "Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuko langileak" terminologiari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak "Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuko langileak" terminologiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko martxoaren 18ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak galdera egin du "Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuko langileak" terminologiari buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Hitz horiek Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileak soilik ala Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langile guztiak hartzen dituzte?



Galderaren aurrekarietan adierazten den bezala, afera honen zergatia da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direla batzutan funtzionarioak "Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileak" dioen terminologia erabiliz aipatzen dituzten foru aginduak eta dekretuak.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretu Legegilearen bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbilduko 1. artikulua, aplikazio esparrua ezartzean, honelaxe definitzen du Nafarroako administrazio publikoak zer diren:

"Estatutu hau Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriari aplikatu zaio; hauei:

a) Foru Komunitateko Administrazioakoei.

b) Nafarroako Toki Entitateetakoiei.

c) Foru Komunitateko Administrazioaren edo Nafarroako Toki Entitateen menpeko erakunde publikoetakoiei."

Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legeak 44. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen du Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari aplikatuko beharrezko araubide juridikoa eta zein diren izen horretan sartzen diren organoak, departamentuak eta erakundeak.

Beraz, edozein arau juridikotan "Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuko langileak" esakunea erabiltzen denean, haren aplikazio esparrua langile horietara mugatzen da, eta ez zaie aplikatuko Nafarroako administrazio publiko guztietako langileei, kontzeptu horretan Nafarroako toki entitateak ere sartuko bailirateke, hala zehaztuz gero.

2. Ekainaren 17ko 243/1996, otsailaren 24ko 38/1997, urtarrilaren 26ko 12/1998 eta urtarrilaren 18ko 10/1998 foru dekretuek eragina izan al zuten Nafarroako administrazio publiko guztietako lanpostuetan?

Foru dekretu horien xedea da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioakoei eta haren erakunde

autonomoetako zenbait lanposturi ordainsari osagarriak esleitzea, horietako bakoitzaren izenean, zioetan eta xedapen zatietan azaltzen den moduan.

Beraz, ez dago horien arau edukia Nafarroako administrazio publiko guztietako lanpostuetara zabalzerik.

Gainera, foru dekretu horiek eman ziren Administrazioak eta sindikatuek 1995eko abenduaren 1ean izenpetu zuten akordioaren edukia betetzeko (1995eko abenduaren 25eko 158. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen). Administrazioaren modernizazioa eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen 1996-1999 urteetako lan baldintzak xedetzat zituen akordio horretan, III. Tituluko I. puntuko D) letran, haren iraupeneko lau urteetan pixkanaka eta modu proportzionalan ordainsariak homologatzeko ezarri beharreko neurrien artean, hauxe agerrarazi zen: "Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostuen osagarriak eta Nafarroako Foru Komunitateko gainerako administrazioan eta haren erakunde autonomoetan izen eta eginkizun berdinak dituztenenak homologatzea ordainsariei dagokienez, salbu eta unitate organikoetako burutzak eta zuzendaritzak.

Akordio sindikal haren edukia, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa eta haren erakunde autonomoak soilik aipatzen baititu, ez du ahalmenik ematen ordainsarietako homologazioa Nafarroako administrazio publiko guztietara zabaltzeko. Inguruabar horrek sostengua ematen dio lehen, galdera parlamentario honen xede diren foru dekretuen edukia bera aipatzean, adierazi dugun ezezko ondorioari.

Azken batez, foru dekretu horiek ez zuten eraginik izan Nafarroako administrazio publiko guztietako lanpostuetan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko apirilaren 2an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

## Galdera, Iguatorio Médico Quirúrgico de Navarra (IMQ) aseguru-konpainiarekin hitzarmen berria sinatzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Iguatorio Médico Quirúrgico de Navarra (IMQ) aseguru-konpainiarekin hitzarmen berria sinatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, 2002ko otsailaren 15ean, galdera egin du Iguatorio Médico Quirúrgico de Navarra (IMQ) aseguru-konpainiarekin hitzarmen berria sinatzeari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Hitzarmen honek eragina du, guztira, Iguatorio Médico Quirúrgico izenekoan asegurua duten 3.641 hasierako altatan.

Asegurua dutenen kopuruak hauexek dira, osasun eskualde oinarrizkoen arabera:

KODEA	OSASUN ESQUALDE OINARRIZKOA	I.M.Q.ren ERABIL-TZAILEAK GUZTIRA
1	ALTSASU	201
2	ETXARRI-ARANATZ	30
3	IRURTZUN	113
4	LEITZA	41
5	LESAKA	141
6	ELIZONDO	106
7	DONEZTEBE	33
8	LARRAINTZAR	39
9	AURITZ	84
10	AGOITZ	94
11	UHARTE	164
12	ATARRABIA	15
14	BERRIOZAR	44
15	ORKOIEN	34

17	ROTXAPEA	15
25	ZIZUR	33
27	GARES	124
28	NOAIN	144
29	ZANGOZA	106
30	EZKAROZE	33
31	IZABA	58
32	LIZARRA	3
33	VILLATUERTA	24
34	ALLO	57
35	ANTZIN	41
36	LOS ARCOS	68
37	VIANA	45
38	LODOSA	171
39	SAN ADRIÁN	50
40	TAFALLA	6
41	ARTAXOA	118
42	ZARRAKAZTELU	133
43	ERRIBERRI	158
44	AZKOIEN	124
46	TUTERA-EKIALDEA	4
47	VALTIERRA	169
48	CORELLA	217
49	CINTRUENIGO	129
50	CASCANTE	145
51	BUÑUEL	255
63	MENDILLORRI	70
64	ANTSOAIN	2

---

NAFARROA, GUZTIRA 3.641

---

Familiako sendagilea edo pediatra osasun etxe edo/eta kontsultategi bakoitzetik erabiltzaile-etako bakoitzak igorritako aginduen arabera esleitu dira.

Ez dago aurreikusirik giza baliabide gehiago atxikitzea hitzarmen hau betetzeko.

Hitzarmen honen barrenean sarturik dago aldi baterako ezgaitasunaren eta behin-behineko baliaezintasunaren parteak formalizatzea Estatu-ko mutualitate bakoitzaren eredu ofizialetan (MUFACE, MUGEJU, ISFAS). Mutualitateko kide bakoitzak eredu berariazkoak ditu, eta horiexek aurkeztuko dizkio sendagileari honek bete ditzan.

Sendagaiak eta botikako gainerako produktua mutualitateek (MUFACE, MUGEJU, ISFAS) erabiltzaile bakoitzarentzat dituzten errezeta ofiziale-tan aginduko dira eta gaixoa ez bada entitate horietako batekoa, farmaziako preskripzioa errezeta zuritan egingen da (dirulaguntza publikorik gabe).

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren kargurako farmazia prestazioa ez dago sarturik hitzarmenean.

Hitzarmenean sarturik daude, soilik, gaixoari esleitu zaion sendagilearen osasun etxean edo kontsultategian egin daitezkeen probak edo diagnosirako bitartekoak; beraz, gainerako esparruekin zerikusia dutenak (espezialistengana bidaltzea, analisi klinikoak, TAC, Scanner, etab.) horretatik kanpo daude.

Igualatorio Médico Quirúrgico izenekoak Nafarroan dituen aseguruak identifikatzeko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak banakako osasun txartelak emanen dizkie I.M.Q.ren onuradunei, ezaugarri hauekin:

- Taldearen identifikazioa: IM
- Arrasto urdina txartelaren eskuinaldean

- Laguntza taldea: 42 kodea (zein prestaziotarako eskubidea duten adierazten du)

- Inskripzio zk., hasierako digito honekin identifikaturik: 95/...../...

Hitzarmen honek dakartzan konpromisoak hauek dira:

- IMQ-k 12 hilekotan urtean ordaindu beharreko kuota: 165.025,13 euro (27.457.872 pta).

- Urtean, alta eman eta igorritako osasun txartel bakoitzaren kudeaketak dakartzan gastuengatik: 6,01 euro (1.000 pta.)

Hitzarmen ekonomikoak ukituriko profesionalengan izanen duen eraginari dagokionez, hitzarmen honek erraztu egingen du batez ere landa eremuan eman izan den osasun laguntzaren prestazioa, a posteriori egiten zen fakturazioaren kudeaketa sinpleagotuz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 26an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, Zabalguneko Oinarrizko Osasun Laguntzako Etxeari buruzkoa**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak Zabalguneko Oinarrizko Osasun Laguntzako Etxeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko martxoaren 4ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak, 2002ko otsailaren 18an, galdera egin du II Zabalguneko Osasun

Etxeari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

II. Zabalguneko populazioak Amaiurko gaztelua kaleko etxabe batean zegoen kontsultategi zaharrean hartu zuen osasun laguntza 1999. urtearen amaiera arte. Kontsultategi hura, eskualde oinarrizkoaren neurria kontuan harturik, toki desegokian zegoen eta zenbait alderditan -instalazioen tamaina, argiztapena, aireztapena- oso baldintza eskasak zituen.

2000. urtearen hasieran behin-behinekoz aldatu zen kokalekua, osasun etxe berria egin arte, Conde Oliveto anbulatorioko bigarren solairura, eskualde oinarrizkoaren ezarpenarekin batera eta kontsultategiaren eredutik osasun etxearen eredurara igarotzeak antolaketan eta eginkizunetan dakartzan aldaketekin batera.

Conde Olivetora aldatzearen ondorioz, hasiera batean kexak jaso ziren, batez ere kokagune berritik urrutien bizi den populazioarenak, haren interesak kalteturik zeudelakoan; halaber, beste pertsona askok kokaleku berriaren hautaketari ongi iritzi zioten eta hala adierazi zuten, erabakia aldekoa zutelakoan (kale hurbilenetako populazioa).

Alde Zaharreko osasun etxeari atxikitako pertsona askok familiako sendagilea II. Zabalgunean atxikitzeko eskatu zuten, zentro hori hurbilago zutelako eskualdeen arabera zegokiena baino. Eskabide guztiei baieztatu erantzuna eman zitzaion osasun sistema publikoaz baliatzeko aukera erraztu egiten zuela iritzita, eta horrek lagundu beharreko populazioaren kopurua, nagusiki helduak eta zaharrak, handitzea ekarri zuen.

Azken bi urteotan, populazioa gehitzen joan da, eskualde horretan 1.136 etorkin jarri baitira bizitzen. Egungo biztanle kopurua 20.408 da, eta horietatik 19.936 (% 97,74) osasun sistema publikoaren erabilzaileak dira eta TIS dute; horietatik 17.487 (% 89,72) 14 urtetik gorakoak dira eta 2.002 (% 10,38) adin horretatik beherakoak.

»»Plantilla, sendagileena, hauxe da: familiako 11 sendagile (lehen osasun laguntzako 4 eta 7 SDH-kupokoak), batez beste 1.590 gaixo sendagile bakoitzeko eta 2 pediatra, batez beste 1.001 haur pediatra bakoitzeko. Osasun etxea irekita egoten da goizeko 8:00etatik gaueko 20:00etara, astelehenetik ostiralera, eta goizeko 8:00etatik 15:00etara larunbatetan.

Osasun etxe berria eraikitzen denean kexa gehiago jasoko dugula uste dugu, baina kontrakoak, alegia, Conde Oliveton irekitzeaz kexu zirenek gertuago edukiko dute osasun etxea eta pozik daudela adieraziko dute; lehen gustura zeudenak, berriz, zentro berria urruti egoteak kalteturik sentituko dira eta haien kexak helaraziko dizkigute. Zentro berriari esker populazioari zerbitzu gehiago eta hobeak emateko aukera izanen dugunez, pentsatzekoa da polemikak ez duela luze iraunen.

Gaur egun herritarrek badute sendagilea libreki hautatzeko aukera eta hartaz baliatzen dira.

Horrek esan nahi du sendagile guztiak arduratzen direla oinarritzko eskualdeko edozein tokitako herritarrez. Kontuan hartu beharra dago populazio horretan asko eta asko zaharrak direla, hau da, lotura handia dutela familiako sendagilearekin.

Kontsultategi osagarri bat edo batzuk sortzeak ez luke osasun laguntza hobetuko, zeren herritar gehienak bere sendagileari atxikirik segituko luketenez, kontsulta non duen gora behera, joan-etorriak ez bailirateke desagertuko, salbu eta administrazioak eskualde oinarritzkoa ofizios berrantolatu eta populazioaren atxikipen berria, bizitokiaren arabera, egiten ez badu. Horrek ekarriko lukeena da zenbait ekipamendu (ECG, espiometroak...) bikoiztea eta, dudarik gabe, plantilla gehitzea, eta horrekin batera gastua ere, inongo premiarik eta eraginkortasunik gabe.

Aurrekari horrekin, beste eskualde oinarritzko batzuek ere eskatuko lukete, zenbaitetan badirelako osasun etxetik esku artean dugun kasuan baino urrutiago dauden tokiak. Badu horretarako biderik Nafarroako populazioak edo Osasunbideak? Justifikaturik al dago, Iruñean diren distantziak? Sendagile bakoitzeko gaixoen kopurua, Nafarroan, Espainiako gainerako erkidegoetan baino txikiagoa da, besteak beste, etxeko bisiten programa errazteko, funtsezkoa baita oinarritzko eskualde guztietako zerbitzu eskaintzan; eta, dudarik gabe, mota horretako berrantolaketa batek hura kaltetuko luke.

Eraikin berria osasun etxe handietako baten instalazioak (20.000 pertsona inguru), Iruñeko eta Iruñerriko Larrialdietako Zerbitzu Berezia (250.000 pertsona inguru) eta SOS Nafarroa hartzeko pentsaturik dago, horretarako tamaina eman zaio ditu, etekin osoa atera nahi bazaio.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 15ean.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, Osasunbiderako euskara normalizatzeko plan bat eskatzeko aurkezturiko eskaerei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Batasuna Parlamentuko Taldeak Osasunbiderako euskara normalizatzeko plan bat eskatzeko aurkezturiko eskaerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak, 2002ko otsailaren 11n, galdera egin du Nafarroako Gobernuak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ospitaleetan, anbulatorioetan eta osasun etxeetan euskara normalizatzeko plan bat eskatzeko aurkezturiko eskaerei buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ospitaleetan, anbulatorioetan eta osasun etxeetan euskara normalizatzeko plan bat abiarazteko gau-

zatu dituen jarduketak honakoetan xedatutakoari lotu zaizkio: Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua, Gobernuak 2001eko urtarrilaren 8an hartutako Erabakia, euskararen erabilerari buruzko araudia eremu mistoan aplikatzeko ekintza-plana onetsi zuena, Gobernuak 2001eko otsailaren 5ean hartutako Erabakia, euskararen erabilerari buruzko araudia euskal eremuan aplikatzeko ekintza-plana onetsi zuena, eta uztailaren 30eko 203/2001 Foru Dekretua, agertzen duena Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako zein lanpostu, Hezkuntza eta Kultura Departamentuko irakaskuntzako langileak salbu, eskuratzeko den beharrezkoa euskara jakitea, maila zehaztuta, eta noiz den merezimendutzat, beste batzuen artean, hartu behar.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko martxoaren 15ean.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Galdera, abereak hiltegiara eramateko egiten diren osasun-ziurtagiriei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak abereak hiltegiara eramateko egiten diren osasun-ziurtagiriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko martxoaren 18ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du abereak hiltegiara eramateko egiten diren osasun-ziurtagiriei buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna.

Lehenengo eta behin, eta galdera arrazoitzen duen zioen azalpena argitzearen, ez zen akordio-rik izan Nafarroako Gobernuaren eta nekazaritza-ko erakundeen artean eta, beraz, Nekazaritza,

Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ez zuen akordiorik hautsi. Baina Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, sektorearen eskaeren aurrean, albaitaritzako ziurtagirien kostua diruz laguntzeko sistema bat arbitratu zuen. Kostua, batez beste, 2.000 pezetakoa zela balioetsi zen, elkargoaren tarifarik ez baitzegoen eta asmoa zen tarifak ezartzean gehiegikeriarik ez gertatzea. Orain frogaturik gelditu dena da aurkeztutako ziurtagirietako askotan, tarifa Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ematen dituen 2.000 pezetako kopurura egokitu dela.

Gaur arte dirulaguntza jaso duten osasun ziurtagirien kopurua 5.320 da.

Kostua Nafarroako Ogasun Publikoarentzat 62.380 eurokoa izan da.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ez daki hiltegirako zenbat lekualdatzetan jaso den dirulaguntza hori. Dirulaguntza foru dekretuak ezarritako baldintzetan eta lehentasuneko ustiategietarako baizik ez dira ematen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko apirilaren 4an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

## **Galdera, Foru Komunitateko administrazio orokorrak errentan hartuta dituen lokalei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak Foru Komunitateko administrazio orokorrak errentan hartuta dituen lokalei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko otsailaren 26ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Foru Komunitateko administra-

zio orokorrak errentan hartuta dituen lokalei buruzko galdera egin eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna, horien zerrenda erantsirik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2002ko apirilaren 24an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

(Oharra: Aipatu eranskinak foru parlamentarien eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorrerako bulegoetan).

## **Galdera, aurrekontuko “Laneko arriskuei aurrea hartzeko ordezkari sektorialendako laguntzetako programak” kontusailaren betetzeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurrekontuko “Laneko arriskuei aurrea hartzeko ordezkari sektorialendako laguntzetako programak” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko martxoaren 27ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **ERANTZUNA**

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du “laneko arriskuen prebentzioko delegatu sektorialentzako laguntza programa” kontusailak 2001ean izan duen aplikazioari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagoitia Ripoll andrearen erantzuna.

“Laneko arriskuen prebentzioko delegatu sektorialentzako laguntza programa” izeneko 870000—83100—4810—315105 kontusailean oinarriturik, Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak abuztuaren 9an emaniko 94/2001 Foru Aginduaren bidez —114. NAO on argitaratua— laneko arriskuen prebentzioko delegatu sektorialentzako laguntzen deialdia onetsi zen.

Nafarroako industria siderometalurgikorako lan hitzarmenaren 47. artikuluan sortutako lan osasuneko batzordeko kideak -Asociación Navarra de empresarios del metal (ANEM), la Asociación de la pequeña y mediana empresa del metal de NAVARRA (APMEN) eta Langileen Komisioak (CC.OO) eta Unión General de Trabajadores (U.G.T.) sindikatuak- izan ziren deialdi horren babesean laneko arriskuen prebentzioko delegatu sektorialentzako laguntzarako eskabidea aurkeztu zuten bakarrak. Guztiek batera; 148.637,27 euro-

ko laguntza (24.731.160 pta.) eskatu zuten hiru atal hauek zituen proiektua gauzatzeko:

a) Laneko arriskueterako babesa eta prebentzioaren arloko jardueren koordinazioa, informazioa eta prestakuntza lantzeko prozedurak ezartzeko azterlan bat egitea, kontraten edo azpikontraten kasuan edo aldi baterako laneko enpresak erabiltzen direnean.

b) Prebentziorako zerbitzu mankomunatuaren proiektu bat diseinatzea, probintziako edozein enpresa elkartek, metalaren sektorearen barreneko 25 langile bitarteko enpresenak- erabiltzeko modukoa.

c) Sektoreko enpresetara bisitak egin eta harremanak izan enpresaburuekin eta langileekin enpresa bakoitzaren arazoei heltzeko eta kasu bakoitzean behar diren neurri zuzentzaileen gainean aholkua emateko.

Lan zuzendari nagusiaren azaroaren 2an emaniko 769/2001 Ebazpenaren bidez dirulaguntza eman zitzaien eskatzaileei, 148.637,27 eurokoa (24.731.160 pta.), haiek eskatu bezala.

2001eko abenduaren 31n, entitate horiek proiektua gauzatu izana frogatzen zuten fakturak eta agiriak aurkeztu zituzten, 151.153,26 euroko zenbatekoarenak (25.149.786 pta.)

Lan Zuzendaritza Nagusiak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondotik, egiaztatu ahal izan zen diru laguntza jaso zezaketen kostu justifikatuek 144.846,27 euro (24.100.391 pta.) baizik ez zutela egiten, eta beraz emandako dirulaguntzari 3.791 euroko diru kopurua (630.769 pta.) kendu zitzaion eta azkenean ordaindutako dirulaguntzaren zenbatekoa 14.863,99 eurokoa (24.731.160 pta.) izan zen.

Eskabide gehiagorik aurkeztu ezenez aurrekontuko gainerako diru kopurua bete gabe gelditu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 8an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagoitia Ripoll

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> <b>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</b> Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat ..... 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 1,14 »	